

Boluntariotzaren egungo egoera EAEen

2020

Egilea:



Hartzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERPINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SALA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



BOLUNTARIOTZAREN
EUSKAL KONTSEILUA
CONSEJO VASCO
DEL VOLUNTARIADO

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA HELBURUAK	2
2. OHAR METODOLOGIKOAK	3
3. BOLUNTARIOTZAK EAE-N IZANDAKO BILAKAERA	6
3.1. BOLUNTARIOTZAREN ETA PARTAIDETZA SOZIALAREN INGURUKO MUGARRIAK 2015 ETA 2020 ARTEAN	6
3.2. BOLUNTARIOTZAREKIN ETA PARTAIDETZA SOZIALAREKIN LOTUTAKO ZAILTASUNAK	7
3.3. COVID-19AREN PANDEMIAREN ERAGINA BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDEETAN	15
3.4. BOLUNTARIOTZAREKIN ETA PARTAIDETZA SOZIALAREKIN LOTUTAKO ERRONKAK	18
4. COVID-19AREN PANDEMIAREN ONDORIOZ SORTUTAKO ELKARTASUN-EKIMENAK	20
5. BIBLIOGRAFIA	25
6. ERANSKINAK	27
I. ERANSKINA. EZTABAIDA-TALDEETAKO PARTE-HARTZAILEAK	27
II. ERANSKINA. BOLUNTARIOEN SAIOAREN GIDA	28
III. ERANSKINA. EREMU SOZIAL EDO KOMUNITARIOTIK ETA ERAKUNDEEN EREMUTIK SORTUTAKO ELKARTASUN-EKIMENEN ARDURADUNEN SAIOAREN GIDA	30
IV. ERANSKINA. BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDEEN SAIOAREN GIDA	32
IV. ERANSKINA. ADITUEKIN ETA ERAKUNDEEKIN EGINDAKO WEB-MINTEGIKO SAIOAREN GIDOIA	34

1. SARRERA ETA HELBURUAK

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren eskutik, **ikerketa-proiektu bat jarri du abian, EAEko boluntariotzaren egungo egoera eta azken urteotako bilakaera aztertzeko.**

Arau, plan eta estrategia askok agerian utzi dute garrantzitsua dela boluntariotza sakonago ezagutzea eta gizarte osoaren artean boluntariotzaren balioak, izaera altruista eta solidarioa, aukerak eta borondatezko lanaren bitartez herritarrek aktiboki parte hartzearen beharra hedatzea eta horren guztiaren gainean kontzientziatzea.

Eusko Jaurlaritzak, 2017-2020 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategiarekin bat etorriz (*“boluntariotzari eta parte-hartzeari buruzko azterlanak egiteko beharra”* azpimarratzen du), hainbat ikerketa kualitatibo eta kuantitatibo argitaratu ditu azken urteotan, fenomeno horren gaur egungo egoeran sakontzeko.

Hala, 2015ean txosten bat egin zuen EAEko boluntariotzaren egoerari buruz, haren garapenean eta kudeaketan inplikaturako eragileek egindako azterketa sakonean oinarrituta. 2015eko abenduan boluntariotzaren egoera orokorra zein zen azaltzen du txostenak, eta ekintza boluntarioa hobetzeko neurriak eta gomendioak jasotzen ditu. Urte batzuk geroago, 2018an, “Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk EAEn” ikerketa egiteko eskatu zuen Jaurlaritzak, ekintza boluntarioan eta partaidetza sozialerako beste modu batzuetan inplikaturako pertsonen kopurua kuantifikatzeko.

Hemen aurkezten dugun txostenaren helburua da diagnostiko kuantitatiboa osatzea hausnarketa sakonagoen bidez, fenomeno horrek azken urteotan izandako bilakaera eta gaur egungo egoera hobeto ezagutzeko.

Gainera, kontuan hartu behar dugu 2020. urtea oso berezia izan dela COVID-19ak eragindako pandemiagatik, eta horren ondorioz aldaketa izugarriak gertatu direla. Pandemia horrek azken urteotako krisi sanitario, ekonomiko eta sozialik larriena eragin du, eta, aldi berean, hainbat eta hainbat elkartasun-ekimen sorrarazi ditu; boluntario izateko eta gizartean parte hartzeko modu asko. Beraz, horri buruz ere hausnartu nahi izan dugu.

Hala, azterlan honen azken xedea helburu zehatz hauetan xeha daiteke:

- **Azken urteotan ekintza boluntarioarekin zer gertatu den deskribatzea, ikuspegi zabal batetik.** Hau da, mugimendu horren ezaugarri garrantzitsuenak zein diren eta azken urteotan zer bilakaera izan duten jakitea.
- Datozen urteotan boluntariotzak eta herritarren partaidetzarekin lotutako mugimenduek izango dituzten **erronka nagusiak azpimarratzea.**
- **COVID-19aren pandemiak boluntariotzan izan duen inpaktuari** buruz eta horren esanahiari buruz taldean hausnartzea.

2. OHAR METODOLOGIKOAK

Ikerketaren helburuak lortzeko, pertsonen diskurtso intersubjektiboetan sakontzera bideratutako **metodologia kualitatiboa** aukeratu dugu.



Iturri osagarriak bildu eta aztertzea

Teknika honen helburua izan da gaia ezagutzea eta informazioa lortzea, erreferentziazko esparru bat ezarri ahal izateko. Azken kapituluak kontsulta daitezke erabilitako erreferentzia bibliografikoak.

Ekintza boluntarioaren elementu garrantzitsuenen bilakaera balioesteko, *EAEko boluntariotzari buruzko txostena*¹ izenekoan egindako azterketatik abiatu gara. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak egin zuten txosten hori, 2015ean. Boluntariotzaren mugimenduak urte horretan zituen zailtasun nagusiak identifikatzen ditu txostenak, bai eta gainditu beharreko erronkak ere.



EAEn sortutako elkartasun-esperientziak bilatzea

Ikerketan zehar, 2020. urtean EAEn bat-batean sortutako elkartasun-ekimenen mapaketa egin da, esperientzia horien zenbait ezaugarri ezagutzeko.

Ikertzaileek iturri osagarrietara jo zuten ekimen horiei buruzko informazioa bilatzeko: komunikabideen albisteak, erakunde publikoen webguneak, boluntariotzaren agentziek edo beste elkarte batzuek emandako informazioa eta Interneteko bilatzaileak.

Identifikazio-fasea amaitu ondoren, ikerketa-taldea ekimen horiekin jarri zen harremanetan, eta ikerketarako berariaz diseinatutako galdetegi bat² betetzeko eskatu zien.

Galdetutako pertsonen parte hartzeko hainbat modu eskaini zitzaizkien. Alde batetik, fitxak posta elektronikoaren bidez itzul zitezkeen (bete ondoren ikerketa-taldeari helarazten zitzaizkion), edo, bestela, bilketa horretarako berariaz diseinatutako online galdetegi baten bidez.

Taldeak 100 bat ekimen identifikatu zituen euskal lurralde osoan, eta, azkenean, haietako 18k bete zuten bilketa-fitxa.

¹ BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA. *Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoera 2015ean*. Vitoria-Gasteiz, 2015. Eskuragarri hemen:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/voluntariado_en_euskadi/es_situgene/adjuntos/cas_Informe%20situaci%C3%B3n%20del%20voluntariado%202015.pdf

²Galdetegia eranskinetan kontsulta daiteke.




Talde-saioei esker, hausnarketa kolektiboa egin ahal izan da boluntariotzaren egungo egoerari eta azken urteetako bilakaerari buruz.

Etabaida-taldearen edo foku-taldeen teknika pertsona batzuk elkartzean datza, beren iritziak eman ditzaten; horrela, informazioaren zati bat sakonago azter daiteke. Azken batean, pertsonen arteko topaketak dira, eta hainbat ikuspuntutatik egoera hobeto ulertzeko gakoak eman ditzakete.

Zati kualitatibo horretarako probabilitaterik gabeko lagin bat aukeratu da, iritzia ematekoa (lagin arrazoitu esaten zaio). Iritzia emateko laginketetan, ikertu beharreko arazoa hobeto ezagutzeagatik edo esanguratsuenak izateagatik egokienak diren pertsonak aukeratzen dira; alegia, informatzaile onentzat jotzen direnak.

Zehazki, **4 talde-saio** antolatu dira: lehena, boluntario-talde batekin; bigarrena, gizarte-erakundeetako boluntariotzako arduradunekin; hirugarrena, pandemian sortutako boluntariotza-ekimen instituzionalen sustatzaileekin, eta laugarrena, pandemian sortutako boluntariotza-ekimen sozial edo komunitarioen sustatzaileekin.



Taldeak gidoi erdi-egituratu³ baten bidez dinamizatu dira. Sakondu nahi ziren edukiak sartu dira gidoi horretan, eta saioek bi ordu inguruko iraupena izan dute.

Pandemiaren testuingurua kontuan hartuta, eta agintariak kontrol- eta prebentzio-neurri gisa ezarritako mugikortasun-murrizketak eta gomendioak betetzen direla bermatzeko, topaketak **modalitate birtualean** egin dira. Online plataforma bat prestatu da horretarako (zoom).

Parte-hartzaileak aukeratzean, lehentasuna eman zaio ahalik eta talde heterogeneoena osatzeari (adina, sexua, erakundearen jardun-eremua eta abar kontuan izanda).

Etabaida-taldeak aukeratzeko eta osatzeko irizpideak Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin kontrastatu dira, sexuari, lurralde historikoari, erakunde-motari, jardueraren eremuari eta abarri dagokienez aniztasuna bermatzeko.


³Eranskinean kontsulta daiteke.



Web-mintegia adituekin

Gogoeta amaitzeko, **online jardunaldi** bat antolatu da (web-mintegia). Boluntariotzaren eta gizarte-partaidetzaren arloetan adituak diren pertsonak hartu dute parte, bai eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko zenbait erakundek ere.

Martxoaren 18an egin zen jardunaldia, modalitate birtualean eta helburu honekin: elkarriketarako gune bat sortzea, herritarren partaidetzaren eta elkartasunaren egungo joerei buruz hitz egiteko boluntariotzaren esparruko adituekin. Saioak bi ordu inguru iraun zuen.



Eztabaida-taldeek ez bezala, web-mintegiak izaera irekia izan du; gai horretan interesa duen edonork har zezakeen parte, aldez aurretik izena emanda. Guztira 60 pertsonak eman zuten izena saio horretan.

Hizlariak aukeratzeko orduan, boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren eremuan duten eskarmentua eta ibilbidea hartu dira kontuan. Hizlarien aukeraketa ere Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin kontrastatu da, sexuari, lurralde historikoari, ibilbideari eta abarri dagokienez aniztasuna bermatzeko hainbat irizpideri jarraiki.

Zehazki, pertsona hauek hartu dute parte jardunaldian:

ADITUEN MAHAIA: Herritarren partaidetzan eragina izan dezaketen egungo joera soziologikoak	
IMANOL ZUBERO	EHUko irakaslea
MANUEL MERINO	Bizkaiko Adinekoen Kontseiluko lehendakaria
ASIER GALLASTEGI	Bherria proiektuaren arduraduna
ERAKUNDEEN MAHAIA: herritarren partaidetzan eragina izan dezaketen egungo joerei buruz erakundeek duten ikuspegia	
MAVI LAISEKA	Bizkaiko Caritaseko Boluntariotza Arloko arduraduna
JAVIER FERNÁNDEZ DE TROCÓNIZ	Arabako SECOTeko presidentea
MIREN GURRUTXAGA	Gizalde (Gipuzkoako Boluntariotza Agentzia)
MAIALEN OLABE	Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) lehendakaria

3. BOLUNTARIOTZAK EAE-N IZANDAKO BILAKAERA

3.1. BOLUNTARIOTZAREN ETA PARTAIDETZA SOZIALAREN INGURUKO MUGARRIAK 2015 ETA 2020 ARTEAN

Boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren inguruko mugarri edo gertaera esanguratsuenak, 2015 eta 2020 artean, honako hauek izan dira:

Lehenik eta behin, 2016an **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legea onartu izana** aipatzen da. lege horrek arau-esparru bat ematen die Euskadin sektore hori osatzen duten erakundeei eta sareei. Mugarri horren garrantzia ulertzeko, gogoan hartu behar da gaur egun Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen % 87,9an boluntarioak direla kideen erdia edo gehiago.

Bigarrenik, **Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2017-2020** izenekoaren prestaketa nabarmentzen da. Azken urteotan boluntariotza eta herritarren partaidetza zabaltzen lagundu du esparru orokor horrek.

Horrekin batera, 2015ean **Boluntariotzaren Estatuko Lege** berria onartu izana aipatu da. Lege horrek arautzen du boluntariotzaren mugimendua Estatuan, eta bultzada handia izan da ekintza boluntarioa arautzeko, babesteko eta aitortzeko, aurreko erregulazioarekin alderatuta (1996koa da).

Pertsona batzuek **Adingabea Babesteko Legean egindako aldaketak** azpimarratu dituzte. Lege hori tresna garrantzitsua da haurrak eta nerabeak juridikoki babesteko, eta kolektibo horietan esku hartzen dute Hirugarren Sektore Sozialeko erakunde askok.

Kasuren batean, **mugimendu feministak eta ingurumenaren aldeko ekimenek hartu duten indarra** aipatzen da; dirudienez, mugimendu horiek zeharka sartzen ari dira ekintza boluntarioan eta herritarren partaidetzan.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat **sare sozialen eta Interneten eragina** da, batez ere gazteen artean. Horren ondorioz eskaera berriak sortu dira boluntariotza sustatzen duten erakundeetan, eta parte hartzeko modu berriak ere bai (sare sozialen bidezko komunikazioa, ziberaktibismoa, kanpaina birtualak, eta abar).

Azkenik, segur aski azken urteotako gertaerarik garrantzitsuenak izan dena aipatzen da: **koronabirusak munduan eragindako pandemia**. Pandemia horrek azken urteotako osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisirik larriena ekarri du, eta gutxienez bi modutara eragin du boluntariotzan.

Alde batetik, zuzeneko ekintza boluntarioa ekintza birtual bihurtu behar izan delako. Eta, bestetik, ez da ahaztu behar koronabirusak ekarritako larrialdi-egoeraren ondorioz sortu direla azken urteko ekimen solidarioetako asko eta asko, neurri handiago edo txikiagoan espontaneoak.

3.2. BOLUNTARIOTZAREKIN ETA PARTAIDETZA SOZIALAREKIN LOTUTAKO ZAILTASUNAK

Lan-prozesuan zehar, boluntarioek gaur egun dituzten zailtasun nagusiak bildu dira.

Gainera, boluntariotzako erakundeei egindako kontsulta aprobetxatuz, EAEko boluntariotzaren egoerari buruz 2015ean egindako txostenean identifikatutako zailtasun nagusien bilakaera aztertu da. Zehazki, kontsultatutako pertsonak diagnostiko bat egin dute, eta horri esker ikusi ahal izan da zer alderditan aurreratu den gehien, eta zertan izan den geldialdi edo atzerakadaren bat.

Irakurketa errazte aldera, atal honetan jasotako informazioa azterketa-bloke edo atal handi batzuetan sailkatzea erabaki dugu:



Jarraian, azterketa-eremu bakoitzean identifikatutako zailtasun nagusiak azalduko ditugu:



#1 Administrazio Publikoarekiko zailtasunak

Kontsultatutako pertsona guztiek adierazi dute Administrazio Publikoak **egitura departamentalizatuegia duela**, eta horrek ekintza boluntario zeharkakoa eta integrala oztopatzen duela. Eta oztopo horiek are handiagoak dira boluntariotza Administrazio Publikoko maila jakin batzuekin koordinatu behar denean.

Inkestatuek nabarmendu dute, halaber, **burokratizazioa geroz eta handiagoa dela Administrazioarekin egiten diren prozesuetan**, eta horrek kalte egiten diola boluntariotzako erakundearen eraginkortasunari eta arintasunari. Eskakizun formalak areagotzeak erakundearen eguneroko lana zailtzen eta oztopatzen du, eta, batez ere, egitura sinplea duten erakunde txikien jarduna eragozten du.

Bestalde, salatu dutenez, Administrazio Publikoak **boluntariotzaren mugimendua instrumentalizatzen du** neurri batean. Haren beharra duenean hurbiltzen da mugimendura,

bera ez delako gai zerbitzu jakin batzuk eman edo premia batzuk asetzeko; aldiz, boluntariotzatik urrundu egiten da haren ekintzak kutsu eraldatzailea hartzen duenean, alegia, salaketak eta aldarrikapenak egiten dituenean. Ildo horretatik, batzuek ohartarazi dute boluntariotza mugimendu asistentzialista bihurtzeko arriskua dagoela. Kasu horretan, boluntariotzak bere ikuspegi eraldatzailea galduko luke, eta erakundeak elkarrekin lehiatzen arituko lirateke zerbitzu horiek emateko.

Bestalde, **finantzaketa lortzeko zailtasunak** azpimarratu dituzte. Finantzaketa beharrezkoa da oinarrizko ekintzak gauzatzeko; boluntarioei prestakuntza emateko, adibidez, edo boluntariotza ikusarazteko eta boluntarioak erakartzeko. Ildo horretatik, azpimarratu dute erakunde asko finantzaketa publikoaren mende daudela, eta ez dutela ia ahalmenik diru-sarrera propioak sortzeko.

Inkestatu gehienek uste dute **boluntariotzaren eta Administrazio Publikoaren arteko harremanak ez direla apenas hobetu azken urteotan**, eta egungo egoera lehengoaren oso antzekoa dela. Are gehiago, alderdi jakin batzuetan bilakaera negatiboa izan dela dirudi; burokratizazioaren kasuan, esaterako.

	Bilakaera positiboa	Ez du bilakaerarik izan	Bilakaera negatiboa
ADMINISTRATIO PUBLIKOAREKIKO			
Administrazio Publikoaren konpartimentazioa			
Gehiegizko burokratizazioa			
Administrazio Publikoaren aldetik boluntariotzaren eta parte-hartze sozialaren aldeko apustu-gabezia			
Erakundeak Administrazioaren ildo beretik joatea			
Finantzaketa-gabezia (Administrazioaren mendekotasuna)			



#2 Erakundeen egitura eta osaerarekin lotutako zailtasunak

Arlo honetako zailtasunak aztertzen hasi aurretik, gogoratu behar da gizarte-erakundeen bitartez bideratutako boluntariotzaz gain partaidetza sozialeko beste modu batzuk ere badaudela; alegia, erakunde horien mugetatik kanpo gauzatzen diren ekintzak. Partaidetza mota horien garrantziaz jabetzeko, hona hemen datu bat: *Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk* izeneko ikerketan⁴ (2017) argitaratutako datuen arabera, euskal

⁴ EDE FUNDAZIOA. *Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk*, 2017. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2017. Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/estrategia_voluntariado_2017/es_def/adjuntos/VOLUNTARIADOCAPV2018_02_042018.pdf

biztanleriaren % 70 inguruk parte hartu du azken urtean jarduera sozial edo politikoren batean: Administrazioari zuzendutako eskaerak sinatu eta babestu, manifestazio batera joan, greba batean parte hartu, eta abar.

Azterlan horren arabera, Euskadiko biztanleen % 13,4k boluntario-lanak egin ditu hirugarren sektoreko erakunderen batean; beraz, interesgarria da jakitea boluntarioek zer zailtasun izaten dituzten erakunde horietan.

Hau da aipatzen den zailtasun nagusietako bat: **boluntarioek oso gutxi parte hartzen dutela boluntarioak dituzten erakundeen kudeaketan eta gobernantzan** (alegia, boluntarioak eta soldatapeko langileak dituzten erakundeetan). Hain zuzen ere, dirudienez, **erakundeek boluntariotzari ematen dioten garrantzia ez dator bat boluntarioek erakunde horien egitura —batez ere, gobernu-organoetan— benetan dute partaidetzarekin.**

Kontsultatutako pertsonak oraindik ere **gabeziak antzematen dituzte erakundeen arteko lankidetzakulturaren**. Erakundeei nolabaiteko endogamia nabari zaie; eta, horren ondorioz, modu indibidualizatuegian jokatzeko dute, nahiz eta geroz eta egitura eta sare gehiago dauden lankidetzak hori bultzatzeko.

Inkestatu gehienek uste dute **erakundeen egitura eta jarduteko moduak zurrunegiak direla**; hala ere, aitortzen dute erakunde askok ahalegin handia egin dutela beren egitura malgutzeko eta beren jarduera egokitzeko COVID-19aren pandemiaren ondorioz sortutako beharretara.

Pandemiak, antza denez, **erakundeen arteko lankidetzak-esperientziak ere sustatu ditu**, eta inkestatuek uste dute larrialdi-egoerak interkonexioa eta baterako lana erraztu dituela.

	Bilakaera positiboa	Ez du bilakaerarik izan	Bilakaera negatiboa
ERAKUNDEEN EGITURA ETA OSAERAREKIKO			
Mugimendu sozialaren eta boluntariotzaren atomizazioa			
Erakunde sozialen egiturazko zurruntasuna			
Erakundeen barne-partaidetzarako mugak			
Egitura ahulak erakundeetan			
Lankidetzarako kultura-gabezia erakundeetan			
Lidergo-gabeziak erakundeetan			
Prestakuntza-gabezia erakunde sozialetan			



#3 Gizarte-testuinguruarekin lotutako zailtasunak

Argi dagoenez, gaur egungo gizarte-testuinguruagatik (laneko prekarietatea, ziurgabetasuna eta bizi-erritmo bizkorrak), boluntarioentzat oso zaila da erakundeetan konpromiso egonkorra izatea. Hala, **2015eko txostenean aipatutako joera finkatu da: partaidetzarako moduak puntualagoak dira, eta konpromiso-maila txikiagoa**. Joera hori boluntario gazteenen artean antzematen da batez ere, haiek baitira lan-ezegonkortasun handiena jasaten dutenak eta etorkizunari buruz zalantza gehien dituztenak. Hala ere, boluntariotza puntual horretan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira adineko pertsonak eta erretiratuak. Pertsona horiek boluntariotza uztartzen dute beste hainbat jarduerarekin (aisia, kirola, familia ...).

Aipatutako gizarte-testuinguruak eragindako zailtasunak gorabehera, pertsona batzuek testuinguru horrek ekar ditzakeen aukerak nabarmendu dituzte. Adibidez, erakundeek **partaidetza sozialerako modu berriak aprobeitza ditzakete, boluntariotza-profil berriak eta bestela mugimendu horretan parte hartuko ez luketen pertsonak erakarrita** (online boluntariotza, kanpaina edo ekintza espezifikoetarako unean uneko boluntariotza ...).

	Bilakaera positiboa	Ez du bilakaerarik izan	Bilakaera negatiboa
EGUNGO TESTUINGURU SOZIALAREKIKO			
Erritmo sozialak gizarte aldakor eta azeleratuan			
Bizitza-estilo berriak, ezegonkortasuna eta malgutasuna bereizgarri izanik			



#4 Erakundeetako enpleguarekin lotutako zailtasunak

Boluntariotzaren egoerari buruz 2015ean egindako txostenak azaltzen zuenez, **gizarte-erakundeek profesionalizaziorantz jo dute**, eta, pixkanaka, ordaindutako langileek boluntarioak ordezkatu dituzte erakundeetako maila askotan.

Alabaina, pixkanakako profesionalizazio horrekin batera ez da beti **behar bezain argi zehaztu zein diren profesionalen eginkizunak eta zein boluntarioenak** erakunde horietan; beraz, bien arteko bizikidetza arriskuan jartzen duten liskarrak sortzen dira. Zenbait kontu aipatu dira gai

horri buruz; adibidez, profesionalek batzuetan ez dituztela ongi hartzen boluntarioek egiten dizkieten kritikak, batik bat erakundearen kudeaketarekin zerikusia dutenean. Horregatik guztiagatik, erakundeetan gero eta joera handiagoa dago proiektuetan bi taldeen lankidetzara saihesteko.

Hala eta guztiz ere, erakundeetako enpleguaren egoerari dagokionez, ez da apenas aldatu orain dela urte batzuetakoarekin alderatuta.

	Bilakaera positiboa	Ez du bilakaerarik izan	Bilakaera negatiboa
ERAKUNDEETAKO ENPLEGUAREKIKO			
Laneko prekarietatea sektorean			
Erakundearen profesionalizazioa			



#5 Boluntariotzaren zeregina azaltzearekin eta ikusgarritasunarekin lotutako zailtasunak

Ezinbestekoa da boluntarioek egiten duten lana azaltzea eta ikusgaraztea. Hala ere, gai hori ez da lehentasunezko zat jotzen erakundearen eguneroko jardueran. Aitzitik, bigarren mailan utzi ohi da, eta zokoratu ere egiten da edozein zailtasun izanez gero.

Kontsultatutako pertsona guztiek uste dute komunikazioarekin eta ikusgarritasunarekin lotutako alderdiak ez direla hobetu azken urteotan; ez dago alde handirik 2015eko egoeraren eta egungoaren artean.

	Bilakaera positiboa	Ez du bilakaerarik izan	Bilakaera negatiboa
BOLUNTARIOTZAREN ROLA KOMUNIKATZEAREKIKO ETA IKUSGARRI EGITEAREKIKO			
Boluntarioen lana gutxi bistaratzea			
Erakundeek eta boluntarioek egindako lana behar beste ez komunikatzea			



#6 Aintzatespen sozialarekin lotutako zailtasunak

2008ko krisiak alderdi politikoekiko mesfidantza handia piztu zuen herritarrengan, eta urteen poderioz, deskonexio hori beste gizarte-eragile batzuetara zabaldu da: sindikatueta, irabazi-asmorik gabeko erakundeetara eta, oro har, boluntariotzara, besteak beste. Zalantzarik gabe, **herritarrek partaidetza sozial antolatuarekiko interesik ez dutenez**, zaila da pertsona gehiago erakartzea boluntariotzara, batez ere erakundeetan.

Hala ere, ez dago adostasunik aintzatespen sozialaren alderdiek izandako bilakaerari buruz; eta, oro har, esan dezakegu alderdi horiek ez direla aldatu 2015az geroztik, edo zertxobait hobetu direla urte horrekin alderatuta.

	Bilakaera positiboa	Ez du bilakaerarik izan	Bilakaera negatiboa
BOLUNTARIOTZAREN ROLAREN AITORPEN SOZIALAREKIKO			
Erakunde sozial batzuekiko deskonfiantza			
Erakunde sozial batzuekiko gizarteak lotura galdu izana			



#7 Konpromisoarekin eta eragin sozialarekin lotutako zailtasunak

Salbuespenak salbuespen, gizarte-erakunde eta -mugimendu gehienek **gizarte-oinarri txikia** dute benetako konpromisoari dagokionez, eta horregatik ezin da erakunde horien biziraupena bermatu epe ertain eta luzera. Hortaz, argi dago boluntario gehiago erakarri behar direla zeregin berriak beren gain har ditzaten, txandakatze naturala bermatzeko eta boluntario-talde txikiei lan gehiegi ez emateko.

Ildo beretik, agerian geratu da mugimenduaren barruan **ez dagoela lidergorik** proiektu kolektiboak bultzatzeko eta jende gehiago boluntariotzara erakartzeko.

Gainera, **motibazio utilitaristek** gora egin dute boluntario-lanarekiko interesa dutenen artean. Gero eta gehiago dira mugimendu horretara lan-esperientzia, unibertsitateko kredituak eta abar

lortzeko jotzen duten pertsonak. Beraz, halako kasuetan ez dago motibazio ideologiko edo aldarrikatzailerik (mugimenduaren motibazio tradizionalak).

Inkestatu batzuen ustez, **ikuspegi eraldatzaile baten falta** antzematen da; baina ez horrenbeste boluntario konprometituenengan (haiek badute osagai kritiko eta aldarrikatzaile hori), baizik eta gizarte-erakundeengan. Hain zuzen ere, erakunde horien izaera eraldatzailea desagertzen ari dela iruditzen zaie.

	Bilakaera positiboa	Ez du bilakaerarik izan	Bilakaera negatiboa
BOLUNTARIOTZAREN KONPROMISO ETA INTZIDENTZIA SOZIALAREKIKO			
Boluntariotzaren ikuspegi eraldatzailearen gabezia			
Boluntarioen artean bestelako motibazio utilitaristak			
Lidergo urriak erakundeetan			
Oinarri sozial txikia erakundeetan			
Errelebo-falta erakundeetan			



Dirudienez, oro har, **azken urteotan ez da aurrerapen handirik egin boluntariotzak eta partaidetza sozialak dituzten zailtasunei dagokienez**. Ildo horretatik, **mugimendu horren aldaketak motelak eta pixkanakakoak** dira inkestatuen iritziz. Hala ere, badirudi gauza batzuk aldatu direla denbora-tarte horretan; haietako batzuk, COVID-19aren pandemiak eragindako egoerak behartuta.



3.3. COVID-19AREN PANDEMIAREN ERAGINA BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDEETAN

2020ko martxoaren 14an, alarma-egoera deklaratu zen Estatu osoan, COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-larrialdia kudeatzeko. Pandemiak herritarren eguneroko bizitza aldatu du, ezohiko neurriak hartu baitziren hura kontrolatzeko (konfinamendua, mugikortasunaren murrizketak eta distantzia soziala); gainera, azken hamarkadetako krisi sanitario, ekonomiko eta sozial larrienetako bat eragin du.

Pandemiak eragin izugarria izan du pertsona askoren bizitzan, hainbat eremutan: enplegua eta erosteko ahalmena galtzea, osasun mentaleko arazoak larriagotzea, nahi ez den bakardadea, ziurgabetasuna, beldurra, etab.

Gizarte osoak pairatu ditu pandemiaren ondorioak, neurri handiagoan edo txikiagoan. Dena den, inkestatu guztiek uste dute krisiak **bereziki kaltetu dituela kolektibo jakin batzuk, eta agerian utzi dituela orain arte ezkutuan zeuden zaurgarritasun bereziko egoera batzuk**.

Zehazki, pandemiak hainbat arazo azaleratu ditu: hasteko, **etxerik gabeko pertsonen** errealitatea. Uste zena baino kolektibo nabarmen handiagoa da, eta konfinamenduan bizileku bat premiaz bilatu behar izan zitzairen. Agerian geratu da, halaber, **bakarrik bizi diren adineko pertsonen bilatu gabeko bakardadea**, pentsa zitekeena baino askoz larriagoa; **indarkeriaren biktimak diren emakumeen eta haien seme-alaben** egoera —beren erasotzaileekin konfinatuta bizi behar izan dute—, eta **desgaituen eta buru-arazoak dituzten pertsonen** egoera —beren gaixotasunak larriagotu egin dira estresaren eta antsietatearen ondorioz—.

Pandemiak agerian utzi duen beste arazo bat **arrakala digitala** da. Hain zuzen ere, gizartean desberdintasun handiak daude teknologia berrien ezagutzari eta haietara sarbidea izateari dagokionez. Kontsultatutako pertsona batzuek aipatu dutenez, pandemian **konektibitateak kolektibitatea ordezkatu du**, eta horrek eragozpen handiak sortu ditu kolektibo jakin batzuetan: tresna horiek erabiltzen ez dakiten adineko pertsonak, pobrezia-egoeran egoteagatik halako tresnarik ez daukaten pertsonak, tresna horiek egokituta ez dituzten pertsona desgaituak, eta abar. **Desberdintasun horien ondorioak bereziki larriak izan dira hezkuntzaren arloan**, eta egoera zaurgarrian dauden adingabeei eragin diete: hezkuntza-atzeratasuna, eskolak emateko zailtasunak, eskola-ibilbideetatik irtetea....

Horren ondorioz, pandemiaren inpaktuak **aldaketa batzuk eragin ditu ekintza boluntarioaren hartzailleen profiletan**, eta **orain arte erakundeek laguntzarik behar izan ez duten kolektiboak sartu dira gizarte-zerbitzuen zirkuituan** (adibidez, guraso bakarreko familiak, ordura arte beren kasa moldatzen ziren adinekoak, osasun mentaleko arazoak garatu dituzten pertsonak, beren lana galtzearen ondorioz arazo ekonomikoak dituzten pertsonak ...).

Boluntariotzaren eginkizuna pandemian

Pandemia iristean abian jarritako neurri murriztaileek eragin handia izan zuten ordura arteko boluntariotza-jarduera askotan. Jarduera horiek testuinguru berrira egokitzea lehenetsi bazen ere (zereginak online formatura pasatzea, telefonoz egitea ...), programa eta zerbitzu guztiak aldi baterako ixtearen ondorioz boluntariotza-jarduera gehienak eten egin ziren.

Ildo horretatik, pandemiak Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorean izandako eraginari buruz Boluntariotzaren Behatokiak (PVE) eta Hirugarren Sektoreko Plataformak (PTS) Estatuan

egindako ikerketaren arabera⁵, pandemia iritsi zenean boluntarioen ia erdiek beren jarduera boluntarioa eten edo murriztu zuten.

Hala ere, boluntariotza geldiarazi beharrean, gizarte-larrialdiko egoerak **elkartasun-ekimen ugari abiarazi zituen**. Euskal lurralde osoan sortu ziren horrelako ekimenak, modu gutxi-asko espontaneoan, krisiak kolektibo kalteberenetan izandako eragina arintzeko. Hala, denbora-tarte labur batean, jende askok egin zuen bat ekimen solidario horietakoren batekin, aurretik boluntariotza-lanetan arituak izan zein ez. Hain izan zen handia boluntariotzaren erantzuna, ezen nabarmen gairitu baitzituen ekimenen buru izandako pertsonen edo erakundeen itxaropenak; izan ere, haiek diotenez, benetan har zezaketena baino askoz ere jende gehiagok eskaini zuen bere burua boluntario izateko.

Zalantzarik gabe, pertsona horiek guztiek larrialdi- eta salbuespen-egoerak sortutako kezka altruistagatik hartu zuten parte ekimen horietan. Berrogeialdiak gure eguneroko bizitza geldiarazi zuen, eta horrek aukera eman zion jende askori hausnartzeko eta gauzei beste ikuspegi batetik begiratzeko. Horrekin batera, egoerak esker onezko eta elkartasunezko sentimenduak piztu zituen une latzak igarotzen ari ziren beste pertsona batzuekiko. Bizitzen ari ginen egoera larria ikusita, pertsona askok pentsatu zuten lagundu beharra zegoela.

Kontsultatuek baieztatu dutenez, **ekimen solidario horietan inplikaturik dauden boluntarioek ez dute profil zehatzik**. Denetarik izan da partaideen artean: gizonak zein emakumeak, adin askotako pertsonak, eskarmentua dutenak boluntariotzan eta partaidetza sozialerako beste modu batzuetan, mugimendu horiekin aurretik loturarik izan ez dutenak... Egindako zereginak ere askotarikoak izan dira: lagun egitea, oinarritzko elikagaiak edo sendagaiak erostea, bakarrik bizi direnei telefonoz deitzea nahi gabeko bakardade-sentimendua arintzeko, arazoak dituzten ikasleei laguntzea, irakaskuntza erraztea baliabide teknologikoak eta Internetarako konexioak jarri... Azken batean, ziurgabetasunez beteriko berrogeialdi horretan gizartean sortuz joan diren behar guztiak asetzen saiatu dira boluntarioak.

Boluntario-talde handiak aurrez aurre mobilizatzeko zailtasunak zirela eta, **borondatezko ekintza birtuala ezinbesteko alternatiba bihurtu zen** proiektuak aurrera ateratzeko. Birusaren zabalkundea eragozteaz gain, parte hartzeko modu horrek abantaila handiak zekartzan: jende gehiagorengana iristen zen, ordutegi malguak zituen boluntariotza lan-jarduerarekin eta bizitza pertsonalarekin uztartu ahal izateko, eta, gainera, lurralde-oztopoak ezabatzen zituen.

Kontsultatutako pertsona guztien iritziz, **boluntariotza** (dela gizarte-erakundeena, dela auzoetako sareen bidez nahiz bat-batean sortutako beste esperientzia solidario batzuen bidez gauzatutakoa) **funtsezkoa izan da osasun-krisiari aurre egiteko**. Hain zuzen ere, oinarritzko zerbitzu publikoek artatu ezin izan dituzten pertsonen lagundu die, eta askotan aukera azkarragoa eta eraginkorragoa izan da.

Boluntarioek eta erakundeek pandemian zehar ekintza boluntarioari dagokionez izandako zailtasunak

Pandemia iritsi zenean, azkar erreakzionatu behar izan zuten bai boluntarioek (askotan, auzo-laguntzako sareetan antolatuta), bai, oro har, gizarte-erakundeek eta Administrazio Publikoak, ekintzak abian jartzeko.

⁵ESPAINIAKO BOLUNTARIOTZAREN PLATAFORMAREN BEHATOKIA. Impacto de la pandemia en las personas contratadas y voluntarias del Tercer Sector de Acción Social, 2020. Eskuragarri hemen: <https://plataformavoluntariado.org/wp-content/uploads/2021/02/impactopandemia-personas-tercer-sector.pdf>

Inplikaturako pertsonen arteko **komunikazio-zailtasunak** izan dira zeregin horretan sortutako arazo nagusietako bat. Gizarte osoari ezarritako mugimendu-murrizketek eta mundu digitalerako birmoldaketa azkarrak are gehiago oztopatu zuten alarma-egoeraren berezko komunikazio kaotikoa. Horri gehitu behar zaio **ez zegoela irizpide argirik une bakoitzean nola jokatu behar zen jakiteko**, egoerak sortutako ziurgabetasunaren eta beldurraren ondorioz. Irizpide-falta horrek are gehiago eragotzi zuen komunikazioa.

Bestalde, inkestatuek diotenez, zailtasunak izan dira abian jarritako ekimenen eta Administrazio Publikoaren arteko lankidetzan, batez ere **sistema publikoaren zurruntasunagatik eta berezko duen gehiegizko departamentalizazioagatik**. Horregatik ezin izan zaio arazoari heldu zeharkako ikuspegi integral batetik, eta horixe eskatzen zuen bizitzen ari ginen krisi-egoerak.

Hona hemen boluntariorik ezak pandemian izandako beste oztopo bat: **une oro ingurune seguru bat eskaintzea, eta ahalik eta gehien gutxitzea kutsadura-fokuak sortzeko arriskua** aurrez aurre lanean ziharduten boluntarioen artean. Ildo horretatik, inkestatuek aipatu dute batzuetan zailtasunak izan dituztela boluntarioei beharrezko babes-materiala emateko (maskarak, testa, etab.), eta material hori oso garestia zela (eta oraindik ere izaten jarraitzen du).

Pandemian zehar ekintza boluntariorik ikasitakoa

Zailtasunez gain, kontsultatuek pandemian zehar ikasitako zenbait gauza ere nabarmendu dituzte. Hala, hau da gehien aipatzen den gauzetako bat: boluntarioak eta gizarte-erakundeak gai izan direla **pandemian sortu diren askotariko premietara egokitzeko eta malgutasunez jokatzeko**. Ziurgabetasuna eta urgentzia oso handiak izanda ere, gizarte-erakundeek beren burua berrasmatu behar izan dute, hartzaileei erantzunak ematen jarraitzeko. Kontsultatutako pertsonak bat datoz honetan ere: konpondu beharreko arazoak hain anitzak zirenez, **funtsezkoa izan da berritzeko eta erantzun berriak antolatzeko gaitasuna edukitzea**, eman beharreko laguntza guztiz indibidualizatua izan baita kasu askotan.

Funtsezkotzat jotako beste alderdi bat **sareko lana izan da, eragileen eta erakundeen arteko koordinaziotik antolatua eta sortua**. Bizi izan dugun krisi-testuinguruan, behar-beharrezkotzat jo dituzte gainerako gizarte-eragileekiko interkonexioa, irekitasuna eta lankidetzak. Dirudienez, **helburu bera partekatzea eta zaurgarritasun-egoera larrienean dauden pertsonen lehentasuna ematea** izan da lankidetzak hori bultzatzeko oinarrietako bat.

Bestalde, inkestatuek azpimarratu dute elkartasun antolatu horren barruan prebentzio-neurriak hartu dituztela proiektuetan inplikaturako pertsona guztiek. Hain zuzen ere, jendea kutsatuz gero, pandemiaren ondorioak arindu beharrean, egoera are gehiago okertuko lukete jarduerak horiek.

Pandemian egindako lanak boluntarioengan izan duen **inpaktu emozionala** ere aipatu dute; eta, batez ere, zuzenean esku hartu duten pertsonen pairatutakoa. Haietako askok estresa, neke emozionala eta antsietatea jasan dituzte. Halako egoeratan pertsonak zaintzeari lehentasuna eman behar zaiola azaldu dute inkestatuek; eta ez bakarrik boluntarioei, baizik eta ekimen solidario horietan inplikaturako eragile guztiei (profesionalak, hartzaileak ...).

Biztanleriaren mugikortasunari jarritako mugak eta harreman sozialen murrizketak direla-eta, **teknologia berriak funtsezkoak izan dira pandemiaren kudeaketan**. Ildo horretatik, pandemia-garaian korrika eta presaka bereganatu duten trebetasun digitala azpimarratu dute.

3.4. BOLUNTARIOTZAREKIN ETA PARTAIDETZA SOZIALAREKIN LOTUTAKO ERRONKAK

Kontsultatutako pertsonekin kontrastatu den beste alderdi bat 2015eko txostenean identifikatutako erronkak dira. Hala, ikusi nahi izan da zein diren mugimendu horrentzat lehentasunezko erronkak, eta zeintzuk ez duten horrenbesteko garrantzirik egungo testuinguruan. Gainera, lan-prozesuan identifikatu diren erronka berriak deskribatu dira.

Hona hemen aurreko txostenean identifikatutako erronkak, gaur egun ere kontsultatutako pertsonen lehentasunetaz jotzen dituztenak:

Boluntarioen kudeaketa: Boluntarioak zaintzeak funtsezko erronka izaten jarraitzen du boluntarioak dituzten erakundeentzat. Boluntarioak zaindu egin behar dira harrera egiten zaienean edo kalitatezko ekintza boluntarioa bermatuko duen prestakuntza espezializatua ematen zaienean, eta laguntza emozionala eman behar zaie boluntario diren bitartean. Gainera, pandemiaren testuinguruan erronka handia izan da boluntarioen motibazioari eustea, pandemiak eragindako murrizketa guztiak kontuan izanda (pertsona-kopurua mugatzea, distantzia soziala, mugimendua mugatzea ...). Bestalde, arrisku-taldeetako pertsona batzuei (adineko pertsonak, aurretik beste gaixotasun batzuk dituztenak...) beldurra ematen die aurrez aurreko boluntariotzari berriz ekiteak.

Iraultza digitala: Gai hori 2015ean erronka bat bazen, gaur egun lehentasunezko helburu bihurtu da. Pandemiak agerian utzi ditu pertsona askoren gabeziak, bai eta erakunde askorenak ere —batez ere txikienenak—, tresna digitalen kudeaketari dagokionez. Krisi honek ekarritako urgentzia dela eta, korrika eta presaka egokitu behar izan dugu mundu digitalera, eta gauza askotan jada ez dago atzera egiterik; krisia amaituta ere, jarduteko modu batzuk ez dira aldatuko. Beraz, ezinbestekoa da gogoeta egitea, aztertzea zerk funtzionatzen duen eta zerk ez, eta erakundeen nahiz boluntarioen alfabetatze digitala planifikatzea.

Erreleboa eta lidergo mota berriak: gizarte-oinarrietan konprometitutako boluntario gutxi egoteak eta liderren faltak eragotzi egiten dute erakundeen funtzionamendua bultzatzea eta berritzea; hain zuzen ere, erakunde askoren jarduteko modua zaharkituta dago.

Boluntariotza ikusaraztea: Elkarleen eta boluntariotzaren baitan dagoen aberastasuna eta aniztasuna ikusaraztea oraindik ere gaintitu gabeko ikasgaia da mugimenduan. Boluntariotzak gizarte osoari egiten dion ekarpena sakonago eta hobeto azaltzea lehentasunezko erronka da gaur egun.

Sareko lana sustatzea: beldurra galdu behar zaio partekatzeari, eta baterako lana eta lankidetzak sustatu behar dira. COVID-19aren pandemiaren ondoriozko krisia oso lagungarria izan da bide horretan azkar aurrera egiteko, baina lehentasunetaz jotzen da lankidetzak bide horiek aztertzen jarraitzea.

Bestalde, kontsultatutako pertsonen honako erronka hauek ere aipatu dituzte boluntariotzari dagokionez:

Boluntarioek erabaki-guneetan duten presentzia indartzea: boluntarioek funtsezko zeregina betetzen dute erakundeetan, eta hori islatu egin beharko litzateke erakundeen eztabaida-, hausnarketa- eta erabaki-gune edo foroetan duten partaidetzan.

Partaidetza sozialerako modu berriak aztertzea (online boluntarioria): COVID-19ak eragindako konfinamendua eta harreman sozialen murrizketak direla eta, jarduera asko urruntetik egin behar izan dira—online edo birtualki—, eta ez soilik erakundeen barne-kudeaketaren arloan; baita zerbitzuak emateko orduan ere. Horrekin batera, erakundeetan boluntario berriak sartu dira formatu birtualean. Inplikatzeko modu berritzaile horren potentzialtasunak aztertu beharko lirateke, eta, horretarako, beharrezko tresnak eta prestakuntza jaso beharko lituzkete boluntarioek.

Erakundeak arintzea eta malgutzea. Testuinguru berriak erakutsi digu antolaketa-eredu malguago baterantz jo behar dugula, erakundea gai izan dadin ahalik eta azkarren erreakzionatzeko eta aldaketetara egokitzeko.

Herritarren partaidetza sustatzea: Sektorearen atomizazioa gero eta handiagoa da. Lehen boluntarioria zeritzona (nagusiki erakundeen bidez bideratutako partaidetza sozialerako modu bat) partaidetza sozialerako modu huts bihurtzen ari da. Hautematen hasi gara jendea urruntzen ari dela boluntarioria-eredu tradizionaleratik; gero eta pertsona gehiagok erabakitzen dute beren kabuz aritzea, eta ez dituzte ikusten erakundeen abantailak. Ez ditugu gutxietsi nahi parte hartzeko modu berri horiek, baina erronka interesgarria litzateke herritarren partaidetza sustatzea, demokrazia parte-hartzailearen esperientziei balioa emateko bide gisa.

Boluntario berriei eustea: Pandemian zehar, pertsona asko hurbildu dira boluntarioria beren laguntza eta lankidetzara eskaintzeko. Kasu askotan, konpromiso hori konfinamenduko unerik latzenetara mugatu da. Hala ere, esperientzia horri esker beste pertsona asko sartu dira mugimenduan, eta boluntario horiei eusteko modua topatu beharko litzateke.

Boluntarioen prestakuntza: Ezinbestekoa da boluntarioei prestakuntza espezializatua ematea, kalitatezko ekintza boluntarioa bermatzeko. Horrekin batera, gaikuntza digitala nahitaezkoa da dagoeneko finkatu diren ohitura berriei ongi moldatzeko (telelana, online bilerak, bideoen bidezko esku-hartzeak, etab).

4. COVID-19AREN PANDEMIAREN ONDORIOZ SORTUTAKO ELKARTASUN-EKIMENAK

COVID-19aren krisiaren ondorioz sortutako zailtasunen aurrean, hainbat elkartasun-ekimen jarri dira abian euskal lurralde osoan, krisialdiak egoera zaurgarrienean dauden pertsonengan izandako eragina arintzeko.

Esperientzia horien ezaugarriak ezagutzeko asmoz, mapaketa bat egin dugu, eta horri esker ekimen horietako batzuk identifikatu eta haiekin harremanetan jarri gara.

Lehenik eta behin, ahalik eta esperientzia gehien identifikatze aldera, bilaketa-prozesu bat abiarazi genuen hainbat iturri osagarriren bitartez: komunikabideen albisteak, erakunde publikoen webguneak, boluntariora-agentziek edo lurralde osoko elkarteek emandako informazioa eta Interneteko bilatzaileak.

Gutxi gorabehera 110 elkartasun-esperientzia identifikatu genituen, eta haietako 100ekin harremanetan jartzeko informazioa lortu zuen ikertzaile-taldeak (telefono-zenbakia edota helbide elektronikoa). Esperientzia horien ia erdiak (49) Bizkaian egin ziren, 40 Gipuzkoan eta 11 Araban.

Lehenengo identifikazio-fase horren ondoren, ikertzaileak harremanetan jarri ziren ekimen bakoitzeko erreferentziako pertsonekin, ikerketa-proiektuaren berri eman eta esperientziari buruzko informazioa eskatzeko. Ikerketarako berariaz diseinatutako galdetegi bat⁶ betetzeko eskatu zieten, datu hauek jasotzeko asmoz: zenbat boluntariok hartu zuten parte, zer kolektibori lagundu zieten, zer-nolako jarduerak egin zituzten...

Informatzaileek bi modutara eman zezaketen beren esperientziaren berri: posta elektronikoz (fitxa bete eta ikertzaile-taldeari helarazi behar zion erreferentziako pertsonak) edo online galdetegi baten bidez, datuen bilketa errazteko eta arintzeko.

Informazioa biltzeko prozesuari dagokionez, gauza garrantzitsu bat hartu behar da kontuan: ekimen asko konfinamendu-aldiak iraun zuen bitartean bakarrik egon ziren aktibo (martxotik maiatzera). Beraz, ikertzaile-taldeari ezinezkoa egin zitzaion geroago ekimen horiekin harremanetan jartzea: posta elektronikoko kontu asko alarma-egoerarako soilik sortu zirenez, mezuak ez zituen jada inork irakurtzen; telefono-zenbakiak desbideratu egin zituztenez, inork ez zien deiei erantzuten....

Hala eta guztiz ere, **18 ekimen solidariori buruzko informazioa bildu dugu. EAEko hiru lurralde historikoetan gauzatu dira ekimenok, dela erakunderen batek bultzatuta, dela komunitate edo auzoren batek antolatuta.**

Azkenik, gauza bat argitu behar dugu: hemen aurkezten dugun azterketak ez ditu islatzen pandemian zehar EAEan abian jarritako ekimen guztiak. Dena den, lan honi esker hobeto ezagutu ahal izango ditugu pandemiaren ondorioz sortutako elkartasunaren adibide batzuk.

PANDEMIAN SORTUTAKO ELKARTASUN-EKIMENEN AZTERKETA

⁶Galdetegia eranskinetan kontsulta daiteke.

Lehenik eta behin, eta azterketarekin hasi baino lehen, zehaztapen bat egin behar dugu: aztertutako elkartasun-esperientziak askotarikoak dira. Kasu batzuetan pertsona eta baliabide asko izan dira tartean, eta beste batzuk toki-mailako ekimen txikiak izan dira. Azken horiek udalerrri txikietan egin dira, eta partaide gutxiago izan dituzte. Aniztasun horrek, azken batean, **krisian zehar sortu diren ekimenen heterogeneotasuna islatzen du**, inplikaturako pertsona-kopuruari, xede-taldeari, bete nahi ziren premiei eta ekimenen iraupenari dagokienez.

Zer elkartasun-ekimen hartu dira kontuan? Zertan ziren ekimen horiek? Non kokatu dira? Nork sustatu ditu? Zer eragile inplikatu dira?

Lehen esan bezala, guztira 18 elkartasun-ekimeni buruzko informazioa jaso dugu. **Haiei erdiak (9) Gipuzkoan gauzatu dira, beste 5 Bizkaian eta 3 Araban.** Gainera, esperientzia zehatz baten jarduera-eremua EAE osoa izan da; Eusko Jaurlaritzak sustatutako Guztion Artean ekimenarena, hain zuzen. Erakunde publikoen, Gurutze Gorriaren, Caritasen, Hirugarren Sektore Sozialeko sarearen (Sareen Sarea) eta boluntariotza-agentzien arteko lankidetzatik sortu zen ekimena, Euskadiko Elkarrikeria Zibilerako Mahaia eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren inguruan, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gidaritzapean.

AZTERTUTAKO ELKARTASUN-ESPERIENTZIEN KOKAPENA



Esperientzia horien guztien helburua pandemiak kolektibo ahulenetan izandako eragina arintzea zen. Ekimen horietako batzuetan, **konfinamenduan COVID-19aren gaixotasunekiko zaurgarrienak zirenei lagundu zieten boluntarioek, hala nola adinekoei edo mendekotasuna duten pertsonen.** Gauza asko egin zituzten pertsona horientzat: behar-beharrezko produktuak erosi (elikagaiak, sendagaiak, etab.), otorduak etxera eraman, maskotak paseatu, adingabeak edo mendeko pertsona helduak zaindu ...

Beste ekimen batzuk, berriz, **nahi gabeko bakardadearen ondorioak arintzera bideratu dira, egoera zaurgarrian dauden edo senideen edo beste norbaiten babesik ez duten pertsonen kasuan.** Laguntza hori topaketa birtualen bidez eta telefono-deien bidez gauzatu da.

Azaldutakoez gain, ekimenen arduradunek beste hainbat eta hainbat zeregin aipatu dituzte: euskara edo gaztelaniazko eskola partikularrak eman etorkinei, gorputzeko tenperatura neurtu garraio publikoa erabili behar zutenei, mendekotasuna duten pertsonen lagundu (medikuarengana joaten...), eskolan zailtasunak dituzten adingabeei laguntza akademikoa eman, herritarrentzat oro har interesgarria den informazioa zabaldu (herritarrek artatzeko telefono-lineak, larrialdietarako edo beste premia batzuetarako), etxegabeei ostaturia eman, edo baliabiderik ez duten pertsonen etxeetan ordenagailuak eta Internetarako konexioa jarri.

Praktika horietan inplikaturako eragileei dagokienez, aztertutako ekimen gehienak (15) **gizarte zibilak sustatu ditu, kasu batzuetan hirugarren sektoreko erakundeen bidez, eta beste batzuetan herritarren edo auzotarren ekimen espontaneoek bidez** (lankidetzan aritzeko elkartu diren auzokideak). Kasu askotan, gauzatu diren lekuko udalaren babesa izan dute ekimen horiek. Bestalde, aztertutako ekimenetatik 3 administrazio publikoek sustatu zituzten (Eusko Jaurlaritzak edo udalek), eta hiru kasuetan gizarte zibil antolatuen babesa izan dute. Datu horiek kontuan hartuta, esan dezakegu **herritarren eta Administrazio Publikoaren arteko lankidetzak orokortu egin dela** ekintza solidarioak abian jartzeko orduan.

Zer boluntariok hartu dute parte ekimen horietan? Zein da pertsona horien profila? Zenbat pertsonak parte hartu dute beren borondatez ekimen horietan?

Jasotako datuen arabera, **gutxi gorabehera 1.572 boluntariok hartu zuten parte ekimen horietan**. Dena den, inplikaturako pertsonen kopuruan alde handiak daude esperientzia batzuetatik beste batzuetara. Hala, 6 ekimenetan 10 boluntario edo gutxiago aritu ziren beren lana egiten, eta 2 esperientzian 500 boluntario baino gehiago.

Adinari erreparatuta, ez dirudi ekimen horietan inplikaturako boluntarioek profil jakin bat dutenik. Egia da gazteek pisu handixeagoa izan dutela jardura horietan; hala ere, ekimen horien arduradun gehienek diote adin guztietako boluntarioak izan dituztela.

Sexuari erreparatuta, profila zertxobait feminizatuta dago; izan ere, **esperientzia horietan parte hartu duten hamar pertsonatik sei inguru emakumeak dira**.

Esan behar dugu jardura horietan parte hartu duten pertsona askok lehendik nolabaiteko ibilbidea edo militantzia zutela gizarte-mugimenduetan, edo boluntario-lanak egiten zituztela erakundeetan. Hala ere, zenbaitek ez zuten eskarmenturik horrelako ekimenetan, eta bizitzen ari ginen salbuespenezko egoeraren larritasunagatik erabaki zuten boluntario bihurtzea.

Ekimen horiek abian jartzeaz arduratu diren pertsona guztiek esan dutenez, **boluntario-kopurua nahikoa izan da ekimenaren helburuak bete ahal izateko**. Gainera, denek esan dute **erraza izan dela ekimen horietarako boluntarioak lortzea**. Are gehiago, kontsultatutako pertsona batzuek azaldu dutenez, boluntarioak proaktiboki jarri ziren harremanetan beraiekin, eta parte hartzeko interesa agertu zuten.

Erabilitako komunikazio-bideei dagokienez, gehienek esan dute informazioa telefono mugikorraren eta haren aplikazioen bidez bideratu dela (batez ere WhatsAppen taldeen bidez, baina beste zenbait tresna erabilia ere, hala nola Telegram). Zenbait kasutan beste tresna batzuk ere erabili dituzte, hala nola posta elektronikoa edo bideoak (Zoom eta bestelako plataformen bidez).

Nor izan dira ekimen horien onuradunak? Zein da pertsona horien profila? Zenbat pertsonarengana iritsi da esperientzia horrek emandako laguntza?

Jasotako datuen arabera, ia 300.000 pertsonak jaso dute aztertutako ekimenen laguntza. Hala ere, esan behar da ekimen bakar batek 282.000 onuradun izan dituela (zehazki, Gipuzkoako DYAAk abian jarritakoak). Beraz, esperientzia hori alde batera utzita, **11.000 bat pertsonak jaso dute ekimen horien laguntza**.

Onuradunen profila ere heterogeneoa izan da. Adinekoek eta, oro har, osasunaren ikuspuntutik egoera zaurgarrian daudenek (gaixotasun larriak dituztenak, mendekotasuna duten pertsonak, etab.) pisu handixeagoa izan dutela dirudi. Hala ere, ekimen horien bidez beste kolektibo batzuei ere lagundu zaie: haurrei, premiak dituzten familiei, etorkinei, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan daudenei, klean bizi direnei edo nahi gabeko bakardadea pairatzen dutenei.

Sexuari erreparatuta, jasotako datuen arabera, **emakumeen pisua zertxobait handiagoa da onuradunen artean**, guztizkoaren % 57 inguru baitira.

Zenbat iraun dute esperientzia horiek? Abian jarraitzen al dute?

Esperientzia solidario horien iraupenari dagokionez, esan behar dugu **haien erdiek abian jarraitzen dutela**. Izan ere, ekimenok sorrarazi zituzten premiak ez dira guztiz bete, eta, beraz, pertsona horiei laguntzea behar-beharrezkoa da oraindik. Esperientzien beste erdiak amaituta daude, gehienak konfinamendu-aldirako sortu baitziren, eta, zenbait kasutan, deskonfinamendu-prozesuko lehen asteetarako.

Zein izan dira esperientzia horietatik ikasitako gauza garrantzitsuenak? Zer balorazio egin daiteke esperientzia horiei buruz?

Elkartasun-esperientzia horietan inplikaturako pertsonak gauza asko ikasi dituzte haien bidez. Hau da gehien aipatu duten gauzetako bat: **herritarrak gai izan direla elkarren artean antolatzeko, bizi izan dugun egoera larrian jendeari lagundu ahal izateko**. Krisiak zerbait erakutsi badigu, hau izan da: egoerarik larrienetan ere, beti dagoela norbait beharra duenari laguntzeko prest.

Bestalde, proiektuak aurrera ateratzeko **sarean lan egiteak eta inplikaturako erakundeen arteko lankidetzak dituen onurak** ere aipatu dituzte inkestatuek. Dena dela, zenbaiten iritziz, sektore publikoak ez du behar bezain arin jokatu krisiari aurre egiteko.

Horrez gain, **pertsonek proiektuetara egokitzeko erakutsitako ahalmena** azpimarratu dute. Malgutasun horri esker, erantzun hobe eman ahal izan zaie ekimen horien xede diren pertsonen askotariko premiei.

Inkestatuetako batzuek **teknologia berrien arloan ikasitakoa ere aipatzen dute**: ordainketetarako Bizum erabiltzea, dirua ukitu behar ez izateko; bideodeiak egiteko plataformak erabiltzea...

Beraz, esan dezakegu **balorazioa oso positiboa izan dela, bai proiektuetan inplikaturako boluntarioen aldetik eta bai proiektu horien onuradun izan diren pertsonen aldetik**.

Hain zuzen ere, ekimenek eragin positiboa izan dute boluntarioengan, poz handia sentitu baitute proiektuetan parte hartzeagatik; bai eta onuradunengan ere, izugarri eskertu baitute jasotako laguntza. Gainera, pertsona batzuen iritziz, ekimenek gizartean ere izan dute eragin positiboa, komunitateen eta auzotarren arteko harremanak indartzen lagundu baitute, eta komunitate bateko kide izatearen sentimendua sustatu baitute neurri batean.

JASOTAKO ELKARTASUN-ESPERIENTZIEN INGURUKO ZENBAIT ZIFRA



1572 personas
voluntarias de
todas las edades



6 de cada 10
personas han sido
mujeres



300.000
personas
beneficiadas



50% de las
experiencias se
mantienen en
activo

5. BIBLIOGRAFIA

BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA. *Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren egoera 2015ean*. Vitoria-Gasteiz, 2015. Eskuragarri hemen:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/voluntariado_en_euskadi/es_situgene/adjuantos/cas_Informe%20situaci%C3%B3n%20del%20voluntariado%202015.pdf

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. *Aldundiak #BizkaiaGara boluntarioen laguntza-sarea aktibatu du, lurraldeko adineko zaurgarriei laguntza emateko*. Bilbo: BFAko prentsa-eremua. 2020ko martxoaren 14a. Eskuragarri hemen: <https://web.bizkaia.eus/es/web/area-de-prensa/noticias/-/news/detailView/20813>

ECUADOR ETXEA. *Barrios de Bilbao tejen redes de solidaridad para ayudar a las más vulnerables frente a la Covid19*. Ecuador Etxearen erreportajeen atala. 2020ko martxoaren 18a. Eskuragarri hemen: <https://www.ecuadoretxea.org/barrios-de-bilbao-tejen-redes-de-solidaridad-para-ayudar-a-las-mas-vulnerables-frente-al-covid19/>

ECUADOR ETXEA. *Crean redes vecinales solidarias de cuidados para ayudar y luchar juntas contra el Coronavirus/COVID19*. Ecuador Etxearen erreportajeen atala. 2020ko martxoaren 18a. Eskuragarri hemen: <https://www.ecuadoretxea.org/crean-redes-vecinales-solidarias-de-cuidados-para-ayudar-y-luchar-juntas-contr-el-coronavirus-covid19/>

EDE FUNDAZIOA. *Boluntariotza eta partaidetza sozialerako beste modu batzuk*, 2017. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2017. Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/estrategia_voluntariado_2017/es_def/adjuantos/VOLUNTARIADOCAPV2018_02042018.pdf

FANTOVA, F. *La Comunidad, de nuevo*. Bilbo: Bolunta. 2020ko martxoa. Eskuragarri hemen: <http://fantova.net/?p=2917>

FANTOVA, F. *Redes vecinales y acción comunitaria, hoy y aquí*. Egilearen web-ataria. 2020ko ekaina. Eskuragarri hemen: <http://fantova.net/?p=3012>

GUZTION ARTEAN. ELKARTASUN-SARE ANTOLATUA. *Koronabirusak eragindako egoera dela eta, egoera zaurgarrian daudenei laguntzeko ekimenak*. Gizalde, Gipuzkoako Boluntariotza. 2020ko maiatzaren 18a. Eskuragarri hemen: <http://www.gizalde.eus/es/coronavirus-redes-ciudadanas-de-atencion-a-personas-en-situacion-de-soledad-y-o-vulnerabilidad/>

ESPAINIAKO BOLUNTARIOTZAREN PLATAFORMAREN BEHATOKIA. *Impacto de la pandemia en las personas contratadas y voluntarias del Tercer Sector de Acción Social*, 2020. Eskuragarri hemen: <https://plataformavoluntariado.org/wp-content/uploads/2021/02/impactopandemia-personas-tercer-sector.pdf>

ESPAINIAKO BOLUNTARIOTZAREN PLATAFORMAREN BEHATOKIA. *Las entidades del Voluntariado ante la pandemia. Balance de actuaciones*, 2021. Eskuragarri hemen: https://plataformavoluntariado.org/wp-content/uploads/2021/03/entidades_covid_balance.pdf

HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EUSKAL BEHATOKIA. *Covid-19aren eragina Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan*. Bilbo, 2020. Eskuragarri hemen: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/Informe_COVID_19.pdf

6. ERANSKINAK

I. ERANSKINA. EZTABAIDA-TALDEETAKO PARTE-HARTZAILEAK

SAIOA	PARTE-HARTZAILEAK	EGUNA ETA ORDUA
1. eztabaida-taldea: ELKARTASUN-EKIMEN BERRIETAN ETA ERAKUNDEEN BOLUNTARIOTZAN PARTE HARTZEN DUTENAK	- Naroa Urien (BIZKAIA GARA) - Aitor San Anton (BIZKAIA GARA) - Ainara Urresti (Arabako Gurutze Gorria) - Asier Lopez (Bizkaia) - Begoña Zubimendi (Hurkoa Fundazioa - Gipuzkoa) - Eddi Figueiredo (Ongi Etorri Errefuxiatuak - Bizkaia)	Asteazkena, otsailak 10, 18:00-19:30
2. eztabaida-taldea: ERAKUNDEETAKO BOLUNTARIOEN ARDURADUNAK	- Beatriz Tejedor AFRO Asociación de Residentes Africanos (Araba - Immigrazioa) - Jose Andres Illanas Gurutze Gorria (Gipuzkoa) - Maria Odriozola Nagusilan (Gipuzkoa – Adinekoak) - Enrique Garcia Hasi eta Ikasi (Gipuzkoa – Haurrak) - Aitor Aresti Bizitegi (Bizkaia – Gizarte-bazterketa) - Idoia Sanchez Gaudé (Bizkaia – Desgaitasuna)	Osteguna, otsailak 11, 11:00-13:00
3. eztabaida-taldea: EREMU SOZIAL EDO KOMUNITARIOKO ELKARTASUN-EKIMENEN arduradunak	- Tanit Esnal – Boluntarioen koordinatzailea Hiritarron Harrera Sarean (Donostia) - Garikoitz Garaialde – IZARKOM – (Ordizia) - Beatriz - Miribilla – San Andres laguntza-sarea - Jaime Arambalza de Aquino - Integratzaile sozialak Bizkaia	Asteazkena, otsailak 17, 18:00-19:30
4. eztabaida-taldea: ERAKUNDE-ESPARRUKO EKIMENEN arduradunak eta laguntzaileak	- Manu Calvo, Bizkaiko Gurutze Gorriko koordinatzailea - Loli Muriel, Laudioko Udala – - Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia - Olga Delgado (Bizkaiko Caritas – Guztion Artean)	Osteguna, otsailak 18, 11:00-12:30

II. ERANSKINA. BOLUNTARIOEN SAIOAREN GIDA⁷

10 min	1. Aurkezpen-txanda - Zein da zuen izena? Nongoak zarete? Zenbat urte dituzue? - Elkartasun-ekimenen batean parte hartu al duzue pandemian zehar? Erantzuna baiezkoka bada... Zeinetan? Hori izan al da zuen lehenengo esperientzia boluntario gisa? Erantzuna ezezkoa bada... Zein erakundetan izan zarete boluntario edo zarete gaur egun?
20 min	2. IRISTEA ETA MOTIBAZIOA Pandemiaren ondorioz sortutako ekimen batean parte hartu duzuenoi... (A eta B profila) - Nola izan zenuten pandemiako elkartasun-ekimen horren berri (beharbada jarraituko dute)? Nola ezagutu zenuten? Noren bidez, edo non aurkitu zenuten informazioa? Nola iritsi zineten erakundera? Erakunde batean boluntario izan zaretenoi edo oraindik zaretenoi ... (B edo C profila) - Nola ezagutu zenuten erakunde hori? Nola jakin zenuten han boluntario-lana egin zenezaketela? Noren bidez, edo non aurkitu zenuten informazioa? Nola iritsi zineten erakundera? Pandemiaren ondorioz sortutako ekimen batean parte hartu duzuenoi... (A eta B profila) - Zerk bultzatu zintuzten ekimen horretan parte hartzea? Zergatik erabaki zenuten ekimenarekin bat egitea? Pandemiaren ondorioz sortutako ekimen batean parte hartzeaz gain, erakunde batean boluntario direnei edo izan direnei (B profila). - Izan al zen beste batzuetan ez bezalako zerbait? Zer?
20 min	3. ESPERIENTZIAREN balorazioa Pandemiaren ondorioz sortutako ekimen batean parte hartu duzuenoi... (A eta B profila) - Nola antolatu zarete pandemian sortutako ekimen horretan? Zuen ustez, ekimenaren antolaketa ona izan al da? Ongi funtzionatu al du? - Oztoporen bat izan al duzue? Zein? - Zuen ustez, zer gauzak funtzionatu dute hobekien? Zeri esker funtzionatu dute gauzek bereziki ondo? - Zenbateraino zaudete pozik esperientziarekin? Beste norbaiti gomendatuko zenioke? Errepikatuko al zenukete (amaitu bada)? Zergatik? Pandemiaren ondorioz sortutako ekimen batean parte hartzeaz gain, erakunde batean boluntario direnei edo izan direnei (B profila). - Zertan bereizten dira esperientzia hori eta aurretik izandako beste esperientzia batzuk (lehenago boluntario izan diren pertsonentzat)? Zer zentzutan? Zergatik? Erakunde batean boluntario izan zaretenoi edo oraindik zaretenoi ... (B edo C profila) - Nola baloratuko zenuke zure erakundean boluntariora kudeatzeko modua? Zure ustez, ona al da antolaketa edo kudeaketa? Ondo funtzionatzen du? - Oro har, oztoporik izaten al duzue erakundean boluntario gisa lan egitean? Zein? - Zuen ustez, zer gauzak funtzionatzen dute hobekien? Zeri esker funtzionatu dute gauzek bereziki ondo? - Azken urtean, pandemiaren ondorioz, aldaketarik nabaritu al duzue zuen erakundean? Zein motatakoak? - Zenbateraino zaudete pozik erakundean boluntario gisa izandako esperientziarekin? Beste norbaiti gomendatuko zenioke? Errepikatuko al zenukete (amaitu bada)? Zergatik?
20 min	4. Esperientziaren ONURAK maila pertsonalean eta ERAGINA gizartean

⁷ Saio hau 3 profil motari dago zuzenduta:

- A. Elkartasun-ekimen batean parte hartu du pandemian zehar, baina aurretik ez da inoiz boluntario izan.
- B. Elkartasun-ekimen batean parte hartu du pandemian zehar, eta lehendik edo gaur egun boluntarioa da erakunde batean.
- C. Boluntarioa da erakunde batean, baina pandemian zehar ez du parte hartu inongo elkartasun-ekimenetan.

	Pandemiaren ondorioz sortutako ekimen batean parte hartu duzuenoi... (A eta B profila) - Zenbateraino lortu dira zuk parte hartu duzun ekimenarekin lortu nahi ziren helburuak? Zer zentzutan? Zergatik? - Zer ekarri dizue maila pertsonalean ekimen horretan parte hartu izanak? Zer ikasi duzue esperientzia horretatik? Erakunde batean boluntario izan zaretenoi edo oraindik zaretenoi ... (B edo C profila) - Zer ekarri dizue boluntariotza-esperientziak maila pertsonalean? Zer ikasi duzue esperientzia horretatik? Pertsona guztiei ... (A eta B eta C profila) - Zuen ustez, zer-nolako eragina izan dute gizartean pandemiaren ondorioz sortutako elkartasun-ekimen horiek? Zer neurritan laguntzen dute gizartea hobetzen? Zergatik? Eman dezakezue adibideren bat? - Zuen ustez, zer eragin du gizartean erakundeetako boluntarioen lanak? Zer neurritan laguntzen du gizartea hobetzen? Zergatik? Eman dezakezue adibideren bat? - Zure ustez, zergatik da garrantzitsua gizarte zibilak horrelako ekimenetan parte hartzea?
20 min	5. ETORKIZUNARI begira Pertsona guztiei ... (A eta B eta C profila) - Zure ustez, jarraituko al dute etorkizunean pandemiaren ondorioz sortutako ekimen horiek? Zergatik? Gustatuko al litzaizuke horrela izatea? - Zure ustez, boluntariotza-erakundeek erakarri ahal izango al dituzte ekimen berrietan parte hartzera animatu diren pertsona horietako batzuk, jendeari laguntzeko gogotsu aritu direnak? Zergatik? Nola lor dezakete? Zerk lagundu dezake pertsona gehiagok erakundeekin bat egin dezaten? Aurretik boluntario izan ez direnei ... (A profila) - Ba al duzue asmorik etorkizunean boluntario izaten jarraitzeko? Zer-nolako ekimenak edo erakundeak interesatzen zaizkizue? Zergatik? Zer kasutan jarraituko zenukete boluntario izaten? Zeren mende dago? Pertsona guztiei ... (A eta B eta C profila) - Zure ustez, hemendik aurrera aldatu egingo al da boluntariotzan aritzeko modua? Zer zentzutan? Zergatik? Onerako? Txarrerako?

III. ERANSKINA. EREMU SOZIAL EDO KOMUNITARIOTIK ETA ERAKUNDEEN EREMUTIK SORTUTAKO ELKARTASUN-EKIMENEN ARDURADUNEN SAIOAREN GIDA⁸

20 min	2. Aurkezpen-txanda: PARTE-HARTZAILEAK ETA EKIMENAK - Zein da zuen izena? Nongoak zarete? Pandemiaren ondorioz, zer elkartasun-ekimen jarri duzue martxan, edo zer ekimen lagundu duzue martxan jartzen? - Labur-labur, zertan oinarritu da ekimena? Zenbat boluntario inplikatu dituzue? Zein profiletakoak? Zenbat pertsonari lortu duzue laguntzea?
10 min	2. SORRERA Pertsona guztiei ... (A eta B profila) - Nola sortu zen ekimena? Norengandik sortu zen? Nori bururatu zitzaion? Zergatik? - Nola eman zitzaion forma ideia horri? Nork lagundu zuen abian jartzen? Zerk eragiten ditu aliantza horiek? Erakunde laguntzaile bateko ordezkari direnei ... (B profila) - Zerk eraman zintuzten ekimen horretan parte hartzera? Zergatik erabaki zenuten ekimenarekin bat egitea? Pertsona guztiei ... (A eta B profila) - Sorrera horretan, izan al zen desberdintasunen bat beste ekimen batzuen sorrerarekin alderatuta? Zein? - Zerbaitetan bereizten al dira eremu komunitariotik, erakundeen eremutik edo gizarte-erakundeetatik sustatutako ekimenak?
20 min	3. ESPERIENTZIAREN balorazioa Pertsona guztiei ... (A eta B profila) - Nola antolatu da ekimena? Ekimenaren antolaketa, oro har, egokia izan dela esango zenuke? Ondo funtzionatu al du? - Oztoporen bat izan al duzue? Zein? - Zuen ustez, zer gauzak funtzionatu dute hobekien? Zeri esker funtzionatu dute gauzek bereziki ondo? - Zenbateraino zaudete pozik horrelako ekimen bat abian jarri izanagatik? Errepikatuko al zenukete (amaitu bada)? Zergatik? Zer aldatuko zenukete? - Ekimen horretatik, zerk harritu zaituzte gehien? Zergatik? Zer ikasi duzue? Zer irakaspen ateratu duzue? - Krisi edo gizarte-larrialdi berri bat sortuko balitz, zer errepikatu beharko litzateke, eta zer hobetu? - Zertan bereizten dira ekimen horiek eta boluntariotzako erakundeek egiten duten lana? - Zuen ustez, zerk bultzatu ditu aurretik inoiz boluntario izan ez diren herritarrak ekimen horietan parte hartzera?
20 min	4. Esperientziaren ONURAK eta eragina GIZARTEAN Pertsona guztiei ... (A eta B profila) - Zenbateraino lortu dira ekimenarekin lortu nahi ziren helburuak? Zer zentzutan? Zergatik? - Zertan datza elkartasun-ekimen berrien balioa? Zein izan da ekintza boluntarioaren eragin soziala pandemian (mota batekoa edo bestekoa)? Ekimen hori gauzatu izan ez balitz, zein izango litzateke egoera? Zer neurritan laguntzen dute gizartea hobetzen? Zergatik? Eman dezakezue adibideren bat? - Zure ustez, zergatik da garrantzitsua gizarte zibilak horrelako ekimenetan parte hartzea?
20 min	5. ETORKIZUNARI begira Pertsona guztiei ... (A eta B profila)

⁸ Saio hau 2 profil motari dago zuzenduta:

- A. Erakunde publiko bateko ordezkaria.
- B. Pandemiaren zehar eta erakunde publiko batekin lankidetzan elkartasun instituzionaleko ekimen bat abian jarri duen erakunde bateko ordezkaria.

	- Zure ustez, jarraituko al dute etorkizunean pandemiaren ondorioz sortutako ekimen horiek? Zergatik? Gustatuko al litzaizuke horrela izatea? - Zure ustez, boluntariotza-erakundeek erakarri ahal izango al dituzte ekimen berrietan parte hartzera animatu diren pertsona horietako batzuk, jendeari laguntzeko gogotsu aritu direnak? Zergatik? Nola lor dezakete? Zerk lagundu dezake pertsona gehiagok erakundeekin bat egin dezaten? - Zer eragin izan lezakete, epe ertain eta luzera, pandemian zehar boluntariotzan eta partaidetza sozialean (erakundeen barruan nahiz kanpoan) izandako aldaketek? Zer eginkizun izan dezakete etorkizunean? Zure ustez, hemendik aurrera aldatu egingo al da boluntariotzan aritzeko modua? Zer zentzutan? Zergatik? Onerako? Txarrerako?
--	---

IV. ERANSKINA. BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDEEN SAIOAREN GIDA

5 min	1. Aurkezpen-txanda - Zein da zuen izena? Zein erakundetakoak zarete? Zer egiten du erakundeak? Zenbat boluntario ditu zuen erakundeak? Zenbat denbora daramat boluntarioak kudeatzen nire erakundeak?
1: 10 min	2. BOLUNTARIOTZAREN EGOERAREN BILAKAERA 2015. URTETIK HONA, ETA ETORKIZUNENKOA: Pandemiaz gain, 2015. urtetik gaur arte, izan al da nabarmentzeko moduko beste gertaerarik (araudia, organoak sortzea, ekitaldiak ...)? Zein? Nolakoa izan da errealtatearen bilakaera 2015eko txostenetik? Zailtasun horrek bere horretan jarraitzen du? Bilakaera positiboa edo negatiboa izan al da, edo ez al da aldatu haietako bakoitzaren egoera? Boluntariotzaren egoerari buruz 2015eko txostenean identifikatutako erronkak: 1. Ikusarazpen txikia 2. Komunikazio eskasa 3. Finantziario-falta 4. Atomizazioa 5. Gizarte-oinarri txikia 6. Bizimolde berriak 7. Gizarte-erritmoak 8. Konfiantzarik eza 9. Lan-prekaritatea 10. Ikuspegi eraldatzailerik eza 11. Kanpoko motibazioak 12. Lidergo gutxi 13. Administrazioaren konpartimentazioa 14. Gehiegizko burokratizazioa 15. Administrazioaren apustu falta 16. Gizarte-erakundearen egiturazko zurruntasuna 17. Gizarte-erakundearen prestakuntza-falta 18. Erakundearen barruko parte-hartzearen mugak 19. Erakundearen profesionalizazioa 20. Erakundearen errelebo-falta 21. Administrazioenganako morrontza 22. Erakundearen egitura ahulak 23. Erakundearen lankidetzak-kulturarik eza 24. Erakundearen lidergo-falta 25. Gizartearekiko loturaren galera Zein dira erakundearen ahulezia nagusiak boluntariotzaren kudeaketari dagokionez (goian ikusitakoak edo beste batzuk)? Eta zein indarguneak? Zer aukera eta mehatxu ikusten dira? Zer erronka dituzte gaur egun EAEko boluntariotza-erakundeek? Zein izango lirateke datozen urteetarako erronka berriak? Boluntariotzaren egoerari buruz 2015eko txostenean identifikatutako erronkak 1. Ikusaraztea 2. Diskurtsoa bateratzea 3. Presente egotea 4. Espiritu eraldatzailea berreskuratzea 5. Motibazioak kudeatzea 6. Boluntariotza kudeatzea 7. Egiturak eta erakundea irekitzea 8. Erakundearen boluntariotza sustatzea 9. Gizarte-oinarria sortzea 10. Errelebo eta lidergo-mota berriak

	11. Sarean lan egitea 12. Kudeaketa-eredu propioa 13. Elkarriketa enpresarekin 14. Iraultza digitala 15. Hezkuntza-komunitatearekiko konpromisoa.
15 min	3. COVID-19AREN ERAGINA gure erakundeko boluntariotzaren kudeaketan - Nolako eragina izan du COVID-19ak zuen erakundean, oro har? Eta zehazki, boluntariotzan? - Erakundeak 2020an egindako jardueri dagokienez, etapak bereiz al daitezke? Pandemiaren lehen etapan (martxoa-maiatza) jardunean egon bazineten, zer gertatu zen boluntariotzarekin? Zer aldaketa izan ziren? Boluntario gehiago izan al zenituzten? Ala gutxiago? Boluntarioen profilean aldaketarik izan al zen? Eta dedikazioan? Eta 2020ko hurrengo hilabeteetan, zer gertatu zen boluntariotzarekin? Aldaketarik igarri al zenuten? Zer zentzutan? Zergatik? Zerk eragin zituen aldaketa horiek? - Zer ekarri zuten aldaketok? Zeintzuk izan dira gaingitu beharreko oztoporik handienak? Gauza positiboren bat gertatu al da? Zer? - Zenbateraino egokitu zarete testuinguru berrira? Nola lortu duzue? Jardunbide egokiren bat identifikatu dezakezue (boluntariotzari dagokionez)? Eta jardunbide desegokiren bat? - Zer iritzi duzue erakundeak pandemian jasotako babesari buruz (erakundeek, herritarrek eta beste entitate batzuek emandako babesa)? Zerbaiten falta sumatu duzue boluntariotzaren kudeaketan? Zer (protokoloak, tresnak, informazioa ...)? Zergatik?
15 min	4. PANDEMIAN FORMALIZATU GABEKO ELKARTASUN-EKIMENAK - Zer iritzi duzue pandemiaren ondorioz EAEn sortu diren formalizatu gabeko elkartasun-ekimenei buruz? Ba al duzue haiei buruzko informaziorik? Zer iritzi duzue administrazioak abian jarritako ekimenei buruz? Eta antolatu gabeko gizarte zibilak abian jarritakoei buruz? Zer eragin izan dute ekimen horiek gizartearen? Zergatik? Eman dezakezue adibideren bat? Zertan bereizten dira boluntariotzako erakundeek egiten duten lanetik? - Zuen ustez, zerk bultzatu ditu aurretik inoiz boluntario izan ez diren herritarrak ekimen horietan parte hartzera? - Zuen ustez, ekimen puntual horiek desagertu egingo dira edo denboran zehar iraungo dute? Zuen ustez, zer ibilbide izango dute? Zergatik? Gustatuko al litzazuke horrela izatea? - Lagungarriak al dira zuen erakundeentzat? Aliatutzat hartzen dituzue? Zer ekarpen egin diezazuekete? Zergatik? - Zuen ustez, boluntariotza-erakundeok erakarri ahal izango al dituzue pandemian zehar ekimen informal horietan parte hartu duten pertsonak, jendeari laguntzeko gogotsu aritu direnak? Zergatik? Nola lortu dezakezue? Zerk lagundu dezake pertsona gehiagok erakundeekin bat egin dezaten?
15 min	5. 2020AN IKASITAKOA - Zer nabarmenduko zenukete 2020an gehien harritu zaituzten gauzetatik? Zergatik? Zer ikasi duzue gertatutakotik? Zer lezio atera duzue Covid19-ak zuen erakundeetan izandako inpaktutik? - Zuen erakundean hobekuntzarik egin duzue edo egitea aurreikusi duzue? Zein? Zertarako? - Zer eragin izan lezakete, epe ertain eta luzera, pandemian zehar boluntariotzan eta partaidetza sozialean (erakundeen barruan nahiz kanpoan) izandako aldaketek? Zer eginkizun izan lezakete etorkizunean? Zure ustez, hemendik aurrera aldatu egingo al da boluntariotzan aritzeko modua? Zer zentzutan? Zergatik? Onerako? Txarrerako?

IV. ERANSKINA. ADITUEKIN ETA ERAKUNDEEKIN EGINDAKO WEB-MINTEGIKO SAIOAREN GIDOIA

45 min.	1. ADITUEN PROFILEN AURKEZPENA Gaur egun herritarren partaidetzan eta elkartasunean eragin zuzena izan dezaketen edo alderdi horiek baldintza ditzaketen zenbait gako soziologiko aztertuko dira. Pertsona bakoitzak hasierako aurkezpena egingo du, 10 minutuz, eta, ondoren, aditu guztiek elkarrizketa labur bat izango dute.
60 min.	2. GIZARTE-ERAKUNDEEN AURKEZPENA Lehen zati horren ondoren, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluari atxikitako gizarte-erakunde batzuetako 4-5 ordezkari eztabaida ireki bat izango dute, azken 4 urteotan boluntariotza-erakundeetan izandako bilakaerari eta joerei buruz. Hona hemen galdera batzuk, bigarren zati honetan parte hartzen dutenei laguntzeko: - Orain, jende gehiagok ala gutxiagok jotzen al du zuengana boluntario izateko interesak bultzatuta? - Aldaketa nabarmenen bat izan al da boluntario izan nahi duten pertsonen profilean? - Eta, motibazioei dagokienez, joeraren bat nabarmentzen al da? - Oro har, erakundeen boluntario-kopurua handitu egin da, bere horretan jarraitzen du ala gutxitu egin da? - Aldatzen ari al da boluntarioen konpromiso- edo intentsitate-maila? - Handitu edo gutxitu egin al da boluntarioek erakundeetan batez beste emandako denbora? - Gaur egun, aukera gehiago al dago boluntariotzan aritzeko? - Aldatzen ari al da boluntariotza, modu tradizionaletatik partaidetza sozialerako modu berrietara? - Zer-nolako eragina izan du IKTen eta sare sozialen iraultzak ekintza boluntarioan? - Partaidetzarako dei gehiago egiten al dira orain, herritarrek sentsibilizatzeko eta haien interesa erakartzeko? - Handitu egin al dira boluntarioek erakundeetan duten pisua eta zeregina? - Diskurtso komuna hobetu al da? - Boluntarioen prestakuntza zaintzen al da? Zer-nolako jarrera eta interesa dute boluntarioek prestakuntzarekiko? - Sustatzen al da sareko lana eremu eta erakunde desberdinetako boluntarioen artean? - Zer neurritan eragin diezaioke hirugarren sektorearen bilakaerak Euskadiko boluntariotzari? - Konpromiso pertsonaleko modu berririk sortu al da? - Garrantzirik hartu al dute boluntariotza birtualaren moduek (modu ez-presentzialek)? - Orain baliabide gehiago edo gutxiago al daude erakundeetan boluntariotza sustatzeko eta dinamizatzeko? - Aurrerapenik egin al da profesionalen eta boluntarioen arteko lankidetzan? - Zein dira erakundeek boluntario gehiago inplikatu ahal izateko ditugun zailtasun nagusiak?
15 min	3. PUBLIKOAREKIKO INTERAKZIORAKO GUNE IREKIA